

# **ACTA DE LA SESIÓN DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA**

**26 DE ENERO DE 2016**

En la Sala de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Santurtzi, siendo las once horas y treinta y cinco minutos del día de la fecha antes indicada, previa convocatoria al efecto realizada por el Sr. Presidente, se reúne en sesión extraordinaria y constitutiva el Consejo Rector del Organismo Autónomo con la siguiente composición:

Presidente: D. Danel Bringas Egilior.

Vocales asistentes:

D. Itsazain Ortolatxipi Ibáñez. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.

D<sup>a</sup>. Cristina Senarriaga Rojo. Grupo Municipal Nacionalistas Vascos.

D. Jonatan Sánchez Fernández. Grupo Sí Se Puede Santurtzi.

D<sup>a</sup>. Lorea Artetxe de la Fuente. Grupo Municipal Bildu.

D. Pedro Miguel Lucena Balda. Grupo Municipal Socialista.

D. Luis Ángel Urdiales Villanueva. Grupo Municipal Popular.

Representación del S.U.E.: D<sup>a</sup>. Cristina García Pérez.

Interventor Delegado: D. José Miguel Paredes Cisneros.

Secretario Delegado: José Fernando García Pañeda.

El Sr. Presidente abre la sesión para tratar el asunto incluido en el orden del día de la convocatoria.

## **1º. LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL 24 DE NOVIEMBRE DE 2015.**

A la vista de la previa remisión del acta de la sesión ordinaria celebrada el 24 de noviembre de 2015, se excusa su lectura en el presente momento.

No produciéndose intervenciones al respecto, el Sr. Presidente procede a dirigir la votación del acuerdo:

El Consejo Rector, por mayoría de los/as miembros presentes, con la abstención del representante del grupo Socialistas Vascos por no haber asistido a dicha sesión, acuerda aprobar el acta de la sesión ordinaria celebrada el 24 de noviembre de 2015.

## **2º. DACIÓN DE CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN PRESUPUESTARIA DEL EJERCICIO 2015.**

Da cuenta el Sr. Presidente de la resolución de aprobación de la liquidación presupuestaria del ejercicio 2015, de acuerdo con la documentación previamente facilitada, cediendo la palabra al Sr. Director, quien procede a explicar un resumen del documento de liquidación.

No produciéndose intervenciones al respecto, el Consejo Rector se da por enterado del presente asunto.

## **3º. ASUNTOS DE LA PRESIDENCIA.**

El Sr. Presidente plantea como único punto la provisión con carácter provisional del puesto de Dirección del organismo autónomo, habida cuenta de la situación administrativa de excedencia voluntaria de su titular, el Sr. Lonbide Lizarralde y en tanto dure dicha situación. Añade que, si bien se ha ofrecido dicha provisión al actual Secretario Académico, don Abel Camacho Romero, éste ha declinado la propuesta, por lo que se estima necesario llevar a cabo un nuevo nombramiento, y contar con lo que sería un “plan B” para el caso de que no se produzca, en la fecha límite de la excedencia, el 30 de junio, el reingreso del hasta hace poco Director. Posteriormente cede la palabra a doña Cristina García Pérez, representante del personal del Euskaltegi.

La Sra. García Pérez procede a explicar desde la óptica interna del personal del propio organismo autónomo la situación creada en torno a los cargos directivos, destacando que desde dicha perspectiva destaca la poca fluidez de comunicación entre el equipo directivo y el resto del personal, así como la poca innovación realizada en los últimos tiempos. Indica que uno de los motivos por el que el Sr. Camacho Romero no ha aceptado la propuesta de ocupar la Dirección se debe a que no quería contar con un Secretario Académico, sino que quería asumir esas mismas funciones, pero el Claustro en su gran mayoría cree necesario contar con dicha figura de cara a la gestión de un adecuado proyecto académico.

El Sr. Urdiales Villanueva opina al respecto que no hay que tener dos planes alternativos, sino uno sólo como línea de trabajo de cara al futuro y no limitado hasta el 30 de junio como fecha de posible reingreso del titular. Añade que le llama la atención la incomunicación habida entre el equipo directivo y el resto de la plantilla, siendo una situación a evitar. Propone la puesta en marcha de una línea de trabajo basada en la confección de un proyecto docente estable y la implantación de fórmulas para la revitalización del Euskaltegi, todo ello al margen de las personas que ocupen los puestos directivos.

El Sr. Lucena Balda pregunta quién ocupa la Dirección en el momento presente.

El Sr. Presidente contesta que ejerce dicho cargo el Sr. Camacho Romero por ausencia del titular.

Asimismo pregunta el Sr. Lucena Balda si éste aceptaría un nuevo nombramiento de Secretario Académico siendo él Director del organismo autónomo.

El Sr. Presidente contesta negativamente, señalando que ahí está el problema. Añade que también es cierto que el Sr. Camacho Romero desempeña funciones relacionadas con las nuevas tecnologías, lo cual no está reflejado entre las funciones propias de la Secretaría Académica y es la persona de la plantilla más adecuada para ello.

El Sr. Lucena Balda pregunta si, en consecuencia, hay alguna persona candidata para el puesto de Dirección.

La Sra. García Pérez contesta que ella misma se ha postulado para el puesto, ya que nadie más se ha ofrecido y que con anterioridad al Sr. Lonbide Lizarralde ella misma ocupó dicha Dirección.

Pregunta el Sr. Urdiales Villanueva si es difícil articular el cumplimiento de los requisitos de la relación de puestos de trabajo y de los estatutos del organismo autónomo en cuanto al nombramiento de la Dirección.

El Sr. Presidente contesta que tiene alguna complejidad, pero se puede articular sin problemas.

Igualmente pregunta el Sr. Urdiales Villanueva si el Sr. Camacho Romero permanecería en el puesto de Secretario Académico.

El Sr. Presidente indica que, teniendo en cuenta de las conversaciones mantenidas, no aceptará, si bien su trabajo se puede orientar hacia una serie de labores muy necesarias para el Euskaltegi sobre desarrollo de nuevas tecnologías, noodle, etc. para las cuales que está muy capacitado.

En todo caso, el Sr. Presidente realiza el ofrecimiento de celebrar una sesión del Consejo Rector para debatir el nombramiento de equipo directivo ya con las oportunas propuestas de resolución necesarias para ello.

El Sr. Sánchez Fernández indica que, en la línea con lo ya expuesto hasta ahora, entiende necesario contar con los dos cargos directivos debidamente provistos por personal cualificado, la Dirección y la Secretaría Académica. Añade que, en función de los acuerdos a que se lleguen en el Claustro, propone la celebración de una sesión extraordinaria del Consejo Rector con las propuestas concretas de nombramiento de dichos cargos sobre la mesa.

La Sra. Artetxe de la Fuente opina que, en efecto, hay que dar voz al Claustro en cuanto a la determinación de una propuesta pedagógica y de los cargos directivos que la impulsen, y señala como alternativa el establecimiento de una Dirección renovable cada tres años, como se hacía anteriormente. Añade que también está a favor de tomar medidas para la continuidad de la Dirección que se establezca, al margen de que el titular pueda reingresar o no.

El Sr. Presidente indica que algo parecido ha ocurrido en la Escuela de Música, en la que tras un período de nombramiento permanente del cargo de Dirección, se ha retornado a un modelo de Dirección rotatoria con el tiempo.

#### **4º. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se plantean.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente da por concluida la sesión siendo las doce horas y veinte minutos del día señalado en el encabezamiento. De todo lo cual, como Secretario Delegado de este órgano doy fe.

Vº Bº

**EL PRESIDENTE DE LA  
JUNTA RECTORA,**

**SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN  
ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA**

**2016ko URTARRILAREN 26a**

Santurtziko udaletxearen batzorde-aretoan, arestian aipatutako eguneko hamaikak eta hogeita hamabost minutu direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea

Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Lorea Artetxe de la Fuente and., Bildu Udal Taldea

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldea

Luis Angel Urdiales Villanueva jn., PP Udal Taldea

Santurtziko Udal Euskaltegiko ordezkaria: Cristina García Pérez and.

Kontu-hartzaile eskuordetua: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak saioari hasiera eman dio eta deialdiaren gai zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1.- 2015eko AZAROAREN 24ko SAIOAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

2015eko azaroaren 24ko ohiko saioaren akta alde zuzenetik igorri denez, ez da une horretan irakurri.

Ez denez gai horretan parte-hartzerik egon, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketari ekin dio:

Kontseilukide guztiek aldeko botoa eman dute, Euskal Sozialistak udal taldearen ordezkariak izan ezik, zeinek abstentzioa agertu duen aipatutako saioan egon ez zelako. Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du 2015eko azaroaren 24ko ohiko bileraren akta onartzea.

## **2.- 2015eko EKITALDIAREN AURREKONTUEN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Kontseiluburu jaunak jakinarazi du 2015eko ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioa onartu egin dela, aldez aurretik helarazitako dokumentazioarekin bat. Horrela bada, hitza zuzendariari eman dio, zeinek likidazio-agiriaren laburpena azaldu duen.

Beste parte-hartzerik egon ez denez, Artezkaritza Kontseiluak gaia jorratutzat eman du.

## **3.- KONTSEILUBURUAREN GAIAK**

Kontseiluburu jaunak gai bakarra plazaratu du, autonomiadun erakundearen zuzendari lanpostua behin-behinean betetzea hain zuzen, kontuan hartuta titularrak, Pedro Lonbide Lizarralde jaunak, eskatutako eszedentziak sortutako egoera administratiboa zein den egoerak dirauen bitartean. Gaineratu du aipatutako lanpostua gaur egungo idazkari akademikoari, Abel Camacho Romero jaunari, eskaini bazaio ere, honek ez duela onartu nahi izan, eta hortaz, beharrezkoa ikusi dela beste langile bat izendatzea eta "B plana" prest izatea badaezpada ere, eszedentzia-epea amaituta, ekainaren 30ean, zuzendariak lanpostura ez itzultzea erabakiko balu. Horren ostean, hitza Cristina García Pérez Euskaltegiko langileen ordezkariari eman dio.

García Pérez andreak autonomiadun erakundeko langileen ikuspuntutik zuzendaritza karguen inguruan sortutako egoeraren berri eman du eta nabarmendu du orain arteko zuzendaritza taldearen eta gainontzeko langileen artean egon den komunikazioa eskasa izan dela, azken garai honetan egindako inbertsioa ere hutsaren hurrengoa izan dela. Azaldu du zein izan den Camacho Romero jaunak zuzendaritza ez hartzeko izan duen arrazoietako bat, honakoa hain zuzen: ez zuela berarekin lanean idazkari Akademiko lanpostuan inor nahi, lanpostu horren funtzioak ere bere gain hartu nahi zituelako. Baina Klaustroaren gehiengoak uste du proiektu akademiko egokia kudeatzeko, ezinbestekoa dela Idazkari Akademikoaren figura izatea.

Urdiales Villanueva jaunak horri buruzko iritzia eman du. Bere ustez, ez da horretarako bi plan alternatibo izan behar, bakarra baizik, etorkizunerako lan-ildoak izango dena alegia, eta ez ekainaren 30era arteko plan bat, egun horretan titularra itzuliko delakoan. Gaineratu du deigarri egiten zaiola zuzendaritza-taldea eta plantillaren arteko komunikazio ezarena, berau saihestu beharreko egoera delako. Horrela bada, proposatu du irakaskuntza-egitasmo egonkor batean oinarritutako lan-ildoak abian jartzea eta Euskaltegia suspertzeko formulak ezartzea, hori guztioi zuzendaritza taldeko kideak gorabehera.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea nor den gaur egungo zuzendaria.

Kontseiluburu jaunak esan dio gaur egun Camacho Romero jauna ari dela zuzendari, titularra ez dagoen bitartean.

Horrez gain, galdetu du ea honek beste langile batek Idazkari Akademiko lanpostuan beste langile bat onartuko lukeen baldin eta berak zuzendari jarraituko balu.

Kontseiluburu jaunak ezetz erantzun dio, esanez hortxe dagoela koska. Gaineratu du Camacho Romero jaunak teknologia berriekin lotutako funtzioak egiten dituela eta horiek ez daudela Idazkari Akademiko baten funtzioen artean, eta amaitu du esanez plantilla osotik bera dela teknologia berriekin lotutako funtzioak betetzeko egokiena.

Lucena Balda jaunak galdetu du zuzendaritza hartzeko hautagairik dagoen.

García Pérez andreak erantzun dio berak eskatu duela lanpostua beste inork egin ez duelako, eta izan ere, Lonbide Lizarralde jaunak baino lehen bera izan zela euskaltegiko zuzendaria.

Urdiales Villanueva jaunak galdetu du ea zaila den lanpostuen zerrendan eta autonomiadun estatutuetan azaltzen diren baldintzak bateratzea zuzendariaren izendapenerako.

Kontseiluburu jaunak esan dio erraza ez dela, baina eragozpen handirik gabe bateratu litezkeela.

Urdiales Villanueva jaunak jarraitu du galdetuz ea Camacho Romero jaunak Idazkari Akademiko lanpostuari eutsiko liokeen.

Kontseiluburu jaunak esan dio kontuan hartuta orain arte izan dituzten elkarrizketak uste duela ez lukeela onartuko, baina bere lana euskaltegirako beharrezkoak diren beste zeregin batzuk bete litzakeela, hala nola, teknologia berriak garatu, moodle eta abar, lan horietarako gaitasun handia du eta.

Edonola ere, Kontseiluburu jaunak beste Artezkaritza Kontseilu bat egitea proposatu du zuzendaritza taldearen ingurukoez jarduteko, lanpostuon izendapenak ebazteko proposamen eta guzti.

Sánchez Fernández jaunak esan du orain arte azaldutakoaren harira uste duela ezinbestekoa dela zuzendaritzako bi lanpostuetan, zuzendaritza eta idazkaritza akademikoan, bi langile gaitu egotea. Gaineratu du, betiere klaustroan adosten diren

erabakien arabera, proposatzen duela Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egitea bertara proposamen zehatzak ekarriz aipatutako karguen izendapenez jardun dadin.

Artetxe de la Fuente andreak esan du bere ustez klaustroari hitza eman behar zaiola proposamen pedagogikoa egin eta berau sustatuko duten zuzendaritza-karguak aukeratu ditzan eta alternatiba gisa planteatu du hiru urtean behin zuzendaritza berri litekeela, lehen egiten zen moduan. Bestalde, ezartzen den zuzendaritzak jarraitzeko neurriak hartzearen alde azaldu da, titularra itzuli zein ez.

Kontseiluburu jaunak jakinarazi du Musika Eskolan antzeko zerbait gertatu dela eta garai batean zuzendari kargua behin betikoa izan zen arren, txandaka hartzeko zuzendaritza eredu baten alde egin dutela berriro.

#### **4.- GALDE-ESKEAK**

Ez da egon.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, eguerdiko hamabiak eta hogeita minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut,

O E

**Kontseiluburua**